

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**574/2018 Foru Agindua, abenduaren 4koa, onesten duena Karrerako funtzionarioak izendatzea, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2016ko enplegu publikoaren eskaintzan karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, erdi-mailako teknikarien klasea, Nekazaritzako ingeniari teknikoa, A2 taldea**

Azaroaren 18ko 337/2016 Foru Arauaren bitartez onartu ziren Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2016ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

Ekainaren 12ko 351/2018 Foru Aginduz, praktiketako funtzionarioak izendatu ziren lanpostu honetarako: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, erdi-mailako teknikarien klasea, Nekazaritzako ingeniari teknikoa, A2 taldea. Hautatutako izangaia ondoren zehazten diren lanpostuetara atxikita daude:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Sara Garaicoechea Ruiz	Nekazaritza Garapeneko Egiturretako teknikaria	1228.002
Sergio López de Ullivarri Tojal	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.003
Estitxu Samaniego Gonzalez	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.017
Silvia Corcuera García	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.001
Gaizka Jauregui Gorrotxategui	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.006
Ana Belen Fernández Lavín	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.004
Oier Alberdi Arrieta	Abeltzaintzako erdi-mailako teknikaria	1260.002
Urtzi Arteagoitia Ruiz	Abeltzaintzako erdi-mailako teknikaria	1260.001
Jorge Roman de Lara	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.016

Oinarri arauen 12. atalaren arabera, balioespen batzordeak guztien praktikaldia "Gai" kalifikazioarekin balioetsi du. Ondorioz, praktikaldia gainditu dutenez eta oinarri arau horien 14. atalari jarraituz, karrerako funtzionario izendatu eta izendapen hori ALHAOn argitaratu behar da.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundia- ren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionarioak izendatzea administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, erdi-mailako teknikarien klasea, Nekazaritzako ingeniari teknikoa, A2 taldea. Praktikaldia gaindituak ondoren zehazten diren lanpostuetara atxikita daude:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Sara Garaicoechea Ruiz	Nekazaritza Garapeneko Egiturretako teknikaria	1228.002
Sergio López de Ullivarri Tojal	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.003
Estitxu Samaniego Gonzalez	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.017
Silvia Corcuera García	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.001
Gaizka Jauregui Gorrotxategui	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.006

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Ana Belen Fernández Lavín	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.004
Oier Alberdi Arrieta	Abeltzaintzako erdi-mailako teknikaria	1260.002
Urtzi Arteagoitia Ruiz	Abeltzaintzako erdi-mailako teknikaria	1260.001
Jorge Roman de Lara	Nekazaritzako Laguntza eta Zabalkunde Zerbitzuko teknikaria	1229.016

Bigarrena. Izendatutako izangaiek hilabeteko epea dute lanpostuaz jabetzeko, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori hamabost egun luza daiteke, izangaiek hala eskatzen badute, eta horretarako bidezko arrazoirik izanez gero.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako epealdiaren barruan lanpostuez jabetzen ez bada, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioa izateko eskubideak, deialdiaren ondoriozkoak, galduko dituzte.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak esleitutako lanpostuetara atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, aukerako berraztertze errekurtoa ebazpena eman duen organoaren aurka, hilabeteko epean, Foru Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitute Administrazioekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46.1 artikulua eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Gasteiz, 2018ko abenduaren 4a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**